

Arrasate


P R E S S

1986ko
Urriak 23
425. zenb.



Bozketa prestatzen

IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KULTURA: RUPER ORDORIKA
EUREN IKUSPUNTUTIK: BEGOÑA IGARTUA • KIROLAK: SASKIBALOI TALDEA



Bakea nahi izatea
ez da nahikoa.
Ekinaren ekinaz
lortu behar dugu.



Asko da egiteko daukaguna.

Bakea egiteak eta adiskidetzeak elkarizketa eta tolerantzia

esan nahi dute. Eta hitz egitea eta elkar ulertzea dira ditugu

Joseba Egibar

Juan Jose Ibarretxe
Lehendakariako Hautagaia

arma bakarrak horretarako. Ideia guztiak lasai eztabaidatzeko garaia da, etorkizuna kontutan izand

denon partehartzearekin bultzatuko dugun bake-proposamen zehatza eta adiskidetzekoa egine

Irtenbideren bat badagoela sinesten badugu, aurkituko dugu. Horregatik, botoa emateaz gain zeoz

gehiago behar dugu. Zure ilusioa alegia.



Etorkinak eta laguntzak

Badira urte batzuk familia portugaldar pare bat herriaren kanpo aldean kokatutako furgoneta batzuetan bizi direla. Aurrerago ere hauen egoeraz zertxobait entzun eta hitz egin zen. Zaldirabar inguruan, ijitoen aurkako pintadak ere agertu ziren eta herriko hainbat elkartetan (udala barne) "Arrazakeriaren aurkako astea" izenpean izugarritzako kontzientziario lan bikaina burutu zuten.



Iker Barandiaran

ere—, udalak herritik bota nahi ditu eta aholku zein eskaera guztien aurka, hauek Arrasaten erroldatzeko duten esku-bideari aurka egiten dihardu. Gertaeren larritasunaren ondorioz, herriko elkarte askok etorkin hauen eskubideen zapalkuntza salatu du eta dagoeneko hauen egoeraz jabetu nahian Portugalgo kontsul bat ere herrian izan da. Arazoa ez da txantxetako,

argudia ditzan.

Informazio edo beharrezko argitasun horien esperoan, gogoan dut urte batzuk arinago familia hauen egoera hobetu nahian, hauei etxe bat uzteari buruz hitz egin zela. Orduantxe bat baino gehiago kexu azaldu zen kalean, herrian bertan beharra dutenak ere badaudelako. Ez noa hori ukatzera, estatu espainiarraren baitan laguntza sozialak minioak baitira. Hala ere, ez dut uste konponbidea batzuentzako laguntzak ukatzea denik, baizik eta guztientzat eskatzea. Eta, hari berean, EEE eta euro famatuak direla eta ez direla, agintariak produktuen salneurriak eta orokorrean bizimaila moldatzera behartzen gaituzten heinean, Europako beste herrialde askotako biztanleek eskura ditzaketen giza laguntza berdinak izan beharko genituzke, geuk ere. Ez zarete ohartu, adibidez, herrialde hauetako gazteek mila erraztasun dituztela etxetik alde egiteko? Edo lana aurkitzen ez duten bitartean beren kasa bizitzeko aukera? ■

Azken hilabeteotan, tamalez, luze hitz egin hasi da berriro familia hauen egoeraz eta etorkizunaz. Jakingo duzuen bezala, edo jakin beharko zenuketenez —gertuko komunikabideek gai honi nahiko tratamendu gutxi eman diotela egia bada

“Europako beste herrialde askotako biztanleek eskura ditzaketen giza laguntza berdinak izan beharko genituzke”

beraz. Udalaren burugogorkeriaren aurrean, bidezkoena deritzot astekari honetan tartetxo bat uztea etorkin hauen defentsa eta babes lana hartu duen SOS Arrazakeria erakundeari. Herri astekari honen irakurleok gai honi buruzko informazio argiagoa eta zabalagoa jaso ahal izateko. Eta, zergatik ez, bide batez, udalak ere bere arrazoiak

“CIMen sortu dugun plataforma integralak ingelesa eta euskararekin izango duen jokaera neurtu nahi dugu lehenengo, hauek oso eskaera handiko hizkuntzak baitira”

Adelaida Maidagan

EGIA BERDADEROA

Euskadiko Kutzako telefona

Aspaldi honetan entzuna genuen Euskadiko Kutzak Olandixon jarri duen telefono sistema berriak ezustekoak ematen zituela. Honako hau hil honen 19an gertatu zen.

Arratsaldeko 16:00ak izango ziren. Urliaz galdetzen deitu genuen. “Berehalaxe”, esan zigun telefonistak. Telefonoak jo eta jo eta ahots batek: “espere un momento”. Bi minutu inguru isilean itxaron ondoren, arnas hotsak entzun ziren hariaren bestaldean. “Bai?”, guk. Besteak: “Sendia zara?”. “Ez”, guk, “Berendia naiz. Urliaz galdezka deitu dut, eta hemen naukate, zain”. “Hara!”, besteak, “nik ere kanpotik deitu dut Sendiaz galdezka eta hemen nago”. Horrela minutu bat inguru, elkar agurtu eta beste ahalegin bat egin genuen arte. Urliaz eta Sendiaz arrastorik ere ez.

1,81

batez besteko lan indizea MCC taldean

1960tik hona kooperatibisten errenta 3,5 igo da, hasiera hartan egiten zituzten lanorduen %65 bakarrik eginez. Orduan inork ez zuen automobilik. Gaur egun, aldiz, kooperatibisten %84k badaukate bat. TU-Lankide aldizkariak egingo dako inkesta baten ondorioak dira hauek.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatora kalea, 31

20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40

E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zazendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariek:** Mario Deogracias, Urbane Madera, Maider Osa. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26) **Disenatzaileak:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berri-maleak:** Lierni Unbarren. **Bekaduna:** Gontzal Landi. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Beseide M. E., Karmelo Unbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Jose Man Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 26). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimatokia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko foto-muntaketa: Txos Azurmendi.



Arrasateko Udalerria laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundia laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 23
 • Egunez eta gauez: Español, Ferrerías
- Larunbata, 24
 • Egunez eta gauez: Korkuera, Musakola
- Igandea, 25
 • Egunez eta gauez: Irizar, Erguin
- Astelehena, 26
 • Egunez eta gauez: Amezua, Santa Marina
- Astearte, 27
 • Egunez eta gauez: Zabala, Zarugalde
- Asteazkena, 28
 • Egunez eta gauez: Ruiz, Maala
- Osteguna, 29
 • Egunez eta gauez: Morales, San Andres

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 79 53 00
 Iguatarioa 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara 943 76 55 76
- DYA**
 Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larrialdiak) 943 79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 77 03 46
 • Espezialitateak 943 77 05 78
 Oñati 943 77 12 64
 Eskoriatza 943 78 08 52
 Eskoriatza 943 79 98 58
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 76 14 69
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
 Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
 Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**
 KIUB-OMIC 943 79 51 55
- Monterron liburutegia**
 Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia 943 79 58 77

ARRASATEKO HERRIARI

Urriaren 25ean gure etorkizuna jokoan izango da. Egun honetan gazteok argi eta garbi izan behar dugu geure botoa autodeterminazio eskubidearen aldekoa izan behar dela, Euskal Herriarroi dagokigulako soilik gure herriaren etorkizuna erabakitzea, mugarik eta kanpoko esku sartzerik gabe.

Lurraldetasunaren aldeko botoa. Nafarroa, Bizkaia, Araba, Lapurdi, Gipuzkoa eta Zuberoako herritarroi soilik dagokiguerabakitzea zer nolako harremanak izango ditugun geure artean.

Amnistiaren aldeko botoa. Euskal herritar guztiek parte hartu behar dute Euskal Herria estatu espainiarrarekin eta frantziarrarekin kontrajartzen duen gatazkaren konponbidean. Nolanahi ere, ezinbestekoa da preso politikoak espetxetik ateratzea eta kanporatu eta erbestearek guztiak etxeratzea.

Euskararen aldeko botoa. Gure hizkuntzak dagokion lekua izan dezan.

Hogeita hamabost orduko lan astearen alde. Gazte guztiok aukera izan dezagun lan egiteko, duintasuneko egoera batean.

Gizarte soldataren alde. Pertsona heldu guztiek behar dituzte gutxienez batzuk duintasunez bizi ahal izateko. Lana guztioi dagokigun eskubidea da. Beraz, erakundeek gizarte soldatak bermatu behar dizkiete enplegua lortu ezin dutenei.

Honengatik guztiarengatik,

25ean argi eta garbi izan behar dugu geure botoa Euskal Herriarrok-en aldekoa izan behar dela.

Euskal Herriaren alde borrokatzea merezi duelako, inoiz baino gehiago, 25ean denok bozkatzera.

Jo ta ke irabazi arte!

Arrasateko Jarrai

LIZARRA-GARAZI AKORDIOA:

Lizarr-Garaziko itunak definitzen du, honenbestez proposamen demokratiko bat gatazkaren konponbiderako. Elkarrizketa eta negoziazioan oinarrituriko proposamena, eta konpromiso batez bideratua: onartzea azken finean Euskal Herriko gizon-emakumeek hartu behar dutela erabakia. Proposamen irekia eta bazterketarik gabekoa.

• ETaren erabakiak, alde bateko su etena iragartzeak, pozten gaitu hartutako bidean laguntzaile delako eta Lizarr-Garaziko agirian aurreikusitako den prozesua errazten duelako.

• Lizarr-Garaziko agiriaren garapen egokian interesaturik gauden aldea garenetik, kezkatu eta jarrera kritikoa agertzen gara Espainiako gobernuak eta PP eta PSOE partiduak hartzen ari diren jarrerarekin. Hau da, indarrean dauden Konstituzioa eta Autonomia Estatutuak oztopo eta hesi bihurtuz egoera berri honetan zabaltzen diren aukerak ezabatzeko.

• Konferentzia honetan bildu garen gizon-emakume-

ok uste dugu bide honetik abiatzen dela autodeterminazioaren soluziobidea aurkitzea, euskal herritarren aniztasuna onartzea, euskara eta euskal kultura sustatzea, Euskal Herriaren lurraldetasuna modu egokian eratzeta, hori guztia izanik paregabekoekarpena nazio askatasun gogoak betetzen joateko.

• Honenbestez, pentsatzen dugu beharrezkoa dela bultzada bat ematea aipaturiko Agiriari. Bultzada, euskal gizarteak berea egin dezan, oraindik parte ez diren sektoreak erakartzeko, hala nola CCOO eta UGT esparru sindikalean, estatu espainol eta frantsez hiritarren artean zabaltzeko eta nazioartean babesa lortuz.

• Presoak Euskal Herrira oihua aldarrikatzen dugu eta gobernuari eta Instituciones Penitenciarias delakoari eskatzen diegu euren legalitatea bete dezatela, eta baldintzapeko askatasuna onar diezaizatela zigorraren hiru laurdenak bete dituztenei. Aurrea begira ezinbestea ikusten dugu guztien askatasuna ziurtatuko duen amnistia zabaltea.

• Gure laguntza eta onarpena adierazten diegu hemen-dik aurrera garatuko diren ekintza guztiei, gainditzeko gobernu inguruko esparruetatik negoziazio prozesuari jartzen ari zaizkion oztopoak. Gure gogoak litzateke bide honek eraman gintzala gizarte berdina, bazterketarik gabeko eta elkartasunean oinarrituriko batera.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Hauteskundeetan parte hartzeko asmorik bai?

Urriaren 25ean egingo dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak.



Ester Herrera
(25 urte)
Langilea

Bozkatuko dudan lehenengo aldia izango da.



Jose Julio Heriz Iria
(39 urte)
Langilea

Bai, gainera une honetan bozkatu egin behar dela uste dut. Komeni da bozkatzea.



Iñigo Txintxurreta
(30 urte)
Langilea

Bai, bozkatu beharra dago, bestela espainiarrek eraman-gotuzte boto guztiak.



Maria Luisa Llona
(45 urte)
Irakaslea

Bai, denon parte hartzea oso garrantzitsua dela uste dut, batez ere gure ideiak defendatzeko.



Kepa Mendieta
(28 urte)
Langilea

Botoa emango dut. Bakoi-tzak bere aukera egitea garrantzitsua dela uste dut.



Iruñe Iribekanos
(44 urte)
Irakaslea

Bai, momentu oso garrantzitsua da, une historikoa bizitzen ari gara eta beharrezkotzat jotzen dut bozkatzea.



Langa
(40 urte)
Langilea

Ez, ez dut politikoengan konfiantzarik eta ez dut bozkatuko.



Elisa Gonzalez
(50 urte)
Langilea

Bai, ohituraz gehien bat, baina bozkatuko dut.

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Osasuna oinetatik bururaino doa txikitatik zaindu zapaltzeko modua

Etorri guregana!
Guk dauzkagu umeendako zapata erosoak.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

Arrasate

LANAK

OTALORAN

Pilotalekuaren lanetan kamioiak arituko dira.

URIBARRIN

Uriburu kalean eskaierak egiten ari dira.

ARABA ETORBIDEAN

Bolinite baserri inguruan argi indarra sartzeko lanak.

KONTZEZIÑO KALEAN


Lanek jarraitzen dute.

FORUEN PLAZAN

Espaloia konpontzen.

GAZTELUONDON

Horma bat botatzeko lanak hasiko dira.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 23



LARUNBATA 24



IGANDEA 25

Laino ugari izango ditugu eta tarteka euri tantaren bat ere bai. Goizaldean behelainoa. Haizeak Hegomendebaldetik joko du.

Tarteka lanioak eta goizaldean behelaino izango dugu. Haizeak Hegomendebaldetik joko du.

Oso lainotua. Euri zaparrada ahulak. Tenperaturak behera egingo du pixkat. Mendebaleko haizea.

Ilargia



ilgora

Asteazkenean, Ximun eguna eta urriak 28, ilgora izango dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Santa Teresa


Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean

10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%92,5



Distantziak

| Arrasate | | | | | | | | | | |
|----------|--------|------------|-------|---------|----------|---------|--------|--------|-------|--|
| 121 | Baiona | | | | | | | | | |
| 690 | 579 | Bartzelona | | | | | | | | |
| 57 | 170 | 620 | Bilbo | | | | | | | |
| 1.159 | 1.038 | 2.883 | 1.207 | Brusela | | | | | | |
| 72 | 50 | 529 | 119 | 1.088 | Donostia | | | | | |
| 40 | 180 | 530 | 66 | 1.206 | 118 | Gasteiz | | | | |
| 107 | 120 | 437 | 159 | 1.180 | 92 | 93 | Iruñea | | | |
| 391 | 519 | 621 | 395 | 1.556 | 469 | 351 | 407 | Madril | | |
| 864 | 743 | 1.113 | 911 | 296 | 792 | 910 | 884 | 1.260 | Paris | |

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELATAN espezializatutako zentrua

48 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Eta orain
2. solairua
Saloi eta sofa
erakusketa

LARUNBAT ARRATSALDEETAN ZABALIK!

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE • Tel./Faxa: 943 79 41 82

GRUPO **RKUZ**

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaketan
- Betiko muntaketak

FAGOR



Mitarte, 3 • ARETXABALETA • Tel. / Faxa: 943 77 04 55

23

ostirala

■ ZINEA

La Trama, Alai zinemán, 22:00etan.

25

igandea

■ ZINEA

Los Vengadores, Alai zinemán, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

26

astelehena

■ ZINEA

Los Vengadores, Alai zinemán, 19:00etan eta 21:30etan.

27

asteartea

■ ZINEA

Los Vengadores, Alai zinemán, 19:00etan eta 21:30etan.

24

larunbata

■ MUGARRIZ MUGARRI

Kataide-Bakube-Andra Mari Zuri-Bedoña-Mugarri mendi irteera antolatu du. AEDk. Irteera hau herriko mugarriak ezagutarazteko asmoarekin eratu da. Irteera 08:00etan izango da, Garibai kalean.

■ ZINEA

Los Vengadores, Alai zinemán, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Donostiako *Ezin izan* eta Andoaingo *Gaizkiñe* taldeak arituko dira Arrasateko Gaztetxean. Donostiarrek euren azken lana aurkeztuko dute, gaueko 22:00etatik aurrera.

■ TECHNO-DANCE

Techno-dance urtemuga ospatuko dute Bergarako Jam aretoan. Jaialdia gauerdian hasiko da eta musika, Oscar Mulero, Kristian, Pablo eta Orlando Dj.ek jarriko dute. Sarrera 1.500 pta. kostako da.



DONOSTIAKO ORFEOIA

Aita Memi ospitalaren mendeurrena ospatzeko, Donostiako Orfeoia izango da San Joan Bata izango da. Sarrera, dohain.

29

osteguna

■ EUROAREN KANPAINA

Eurotik-Eurora jolasa antolatu dute Ibai-arte eta Txatxilipurdik, euroari buruzko informazioa txikienei zabaltzeko. Jolasa arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara izango da Sebero Altube plazan. Kanpainak irauten duen bitartean euro galdeketa bat pasatuko da ikastetxez-ikastetxe. Galdeketa hauen erantzunarekin zozketa egingo da, azaroaren 2an.

■ LARUNBLAI ABIAN

Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako haurrentzat Txatxilipurdik antolatzen dituen larunbateroko ekintzak hasiak dira dagoeneko.

■ HAURREN LUDOTEKA

Txatxilipurdiren ludoteka irekita dago jadanik. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako neska-mutikoei zuzendutako ludoteka arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik Sebero plazan. Bazkide kuotak 4.500 pta. balio du. Berri gehiago nahi izanez gero, Ludotekan galdetu.

■ GERIATRIA IKASTAROA

Familia eta Gizarte Hezkuntzarako zentruak *Geriatría* ikastaroa antolatu du. Ikastaroan parte hartzeko emakumea izatea, eskola-graduatu edo titulua lortzeko konpromisoa izatea eta enplegu eskatzailearen txartela izatea eskatzen da. 400 ordu izango dira. Ikastaroak martxoan arte iraungo du.

■ ARGAZKI ERAKUSKETA

Monterronen daude ikusgai IX. Argazki Lehiaketan parte hartu duten argazki guztiak. Erakusketa astegunetan dago zabalik, 18:00etatik 20:00etara. Igande eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Jon Ruiz de Zaratek ere bere argazkiak ditu ikusgai, "Serrajería" izenburupean. Hauek Harresi aretoan daude eta ordutegia lanegunetan 18:00etatik 20:00etara eta igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

■ TAILA IKASTAROA


Arrasateko tailaginen elkarteak taila ikastaroa antolatu du azaroaren 7tik aurrera. Izena emateko deitu gualdera telefono hauetara: 943 79 77 57 (Joxe Mari) eta 943 79 67 64 (Imanol). Ikastaroa elkarteak Erguin kalean duen egoitzan eskainiko da.

■ JOKIN ZAITEGI

AEDK antolatutako Jokin Zaitegi XII. Itzulpen Laburren sariketan lanak aurkezteko azken eguna urriaren 31n amaituko da. Irabazleen zerrenda abenduaren 20an jakingo da. Irabazleak 200.000 pta.ko saria eskura dezake. Bigarren sarituak, berriz, 100.000 pta.

■ EGINGO DUGU

Egingo Dugu plataformak bulegoa ireki du Arrasateko Arranoan. Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkarteak sortu nahi duen egunkariarentzako dirua biltzeaz arduratuko dira hantxe. Arrasaten 23 milioi pta. jaso behar dira. Bulego orduak astelehen eta ostegunetan, 18:00etatik 19:30etara.



elizan. Emanaldia 20:15etan

USTEAK USTE

Zerbitzu sekretuak

Goan dut ETAK menia iragarri ostean, lagun artean hitz egiten jarri ginela egun batean. Harrituta geunden espainolzaileek zein txarto hartu zuten ETAre su etena. Bazirudien beren estrategia guztia hankaz gora jarri zitzailela. Orduan, batek ohartarazi zigun zerbitzu sekretuek egoera honetan izan dezaketeneraginaz, abian jarritako bake bidea desbideratzeko.

Astearte arratsaldean Angel Iturbe eta Belen Gonzalez euskal iheslarien desgertzearen berri entzun nuenean, berehala gogoratu nintzen lagunaren hitzekin. Inkeste aldere abertzaleen gorakada iragartzen dutenean, nahikoa bai litzateke horrelako operazio bat, ezker abertzaleko gazteak haserretu eta direnak eta ez direnak egin ditzaten. Hauen ekintza basatiek haserrea eta beldurra eragingo lukete jende askoren artean, hauen botoen norabidea aldatzeraino. *Voila!*

Oraindik ez dakigu zer gertatu den Angelen eta. Badakigu, ordea, bakea defendatu beharra dagoela.

Joxe Aranzabal



Ingurugiroa

Begoña Igartua*

Urteetan zehar enpresen estrategia garapen teknologikoan bildu da. Horretarako dirutza izugarriak inbertitu dira lekuz eta bitartekoz hazteko, inguruaz bat ere kezkatu gabe.

XXI. mendearen atarian, enpresen estrategia bezeroaren nahiak asetzen oinarritzen da, baina besteak beste beren jardueraren garapenak ingurumenean duen eragina kontuan hartuz.

Europako Batasunean kezka handia dago ingurunea poliki-poliki endekatzen ari delako eta baliabide naturalak agortzen ari direlako. Horren lekuko, nazioartean egiten ari diren kontak ezin ahalako batzarrak eta goi bilerak (Kiotokoa, kasu). Endekatze hau geldiarazteko asmoz, Bruselako Batzordea hainbat arau ematen ari da hainbat alorretan. Esate baterako, energia etiketatzeaz, energia eraginkortasunaz, ontziratze eta paketatzearen gainekoa,

aparailuen birziklapenari buruzkoa, etab., etab.

Errealitate berriaz jabetuta, Fagor Elekratresnak kooperatibako zuzendaritzak bere egin du 2000. urterako dituen helburu estrategikoe-tan Ingurugiroa Kudeatzeko Sistema (IKS) bat ezartzea, ISO 14001 arauaren arabera.

IKS bat ezartzeak zehaztu eta izendatu egiten ditu ingurugiroarekiko funtzioak eta erantzukizunak enpresaren antolaketa egiturari. Horregatik, premiazkoa da enpresa jarduerak ingurugiroan eragindako ondorioen hasierako diagnostikoa egi-

tea. Normalean bide hau egiten da: sartzen dena (lehen-gaia, ura, argindarra) ken irte-tan dena (produktu bukatua eta azpiproduktua) berdin ingurugiroarekiko eragina (hondakin toxikoak, biziga-beak, hirikoak, isurketak).

Analisi honek posible egiten digu kostoak ezagutzea eta zenbatzea, baita hondakinak egiten diren prozesuaren fase-ak antzematea ere. Hori jakin-da, gutxitu egin liteke produktu kutsakorren erabilera, erabat alboratu arte.

Hiru arlotan lan egin ohi da:

- Langileak sentikortu, materialak zentzuz erabil ditzaten eta hiri hondakinen kudeaketa egokia egiteko.

- Etxerako aparailu ekologikoagoak diseinatu. CFC erabat baztertu hozkailuetan, kontsumoa txikitu aparailuak lan egiten duen bitartean, horrela CO² gutxitzeko aha-legendetan lagunduz, ur gutxia-go erabili, garbikari ekologi-koak erabili, eta hau guztia aparailuaren prestazioei eutsiz.

- Produkzio prozesuak hobetu, ahal dela eskura dauden teknologia garbi eta lehiakorrez ordezkatzuz.

Laburbilduz, ingurugiroa enpresen kudeaketa sartzeari erronka galanta da, hiritar guztien esku hartzea eskatzen duena.

“
Ingurugiroa
enpresen kudeaketa
sartzeari erronka
galanta da
”

* Ingurugiro teknikaria

**FELIPE
MADINA
ZURAK**
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

**Plus Ultra
taberna**
Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

Gertu
• Janari prestatuak
• Artisanu produktuak
• Hanburgesak
• Pizakak
• Bokatak
• Bakailaoa
Mitarte 10 • ARETXABAETA
Tfnoa: 943 77 06 12 • Fax: 943 77 15 82

astea bi hitzetan

■ **Alde egiteko agindua**
Zaldispén bizi diren bi familia portugaldarrak Zaldispéko aparkalekutik joanaraz ditzakeen hirugarren agindua udaletxean dago. Orain arte izan diren beste bi aginduak errekurritu egin zituzten bi familia hauen ordezkariak, baina Euskal Herriko Auzitegi Gorenak ez zituen aintzat hartu errekurtsioak.

■ **Dirua batzen**
Arrasateko Egingo Dugu plataforma *Egin* egunkariaren ordezkoa sortzeko behar

den dirua biltzen ari da. Hemendik abendua arte 23 milioi pezeta lortu nahi ditu Arrasaten. Azalpen gehiago behar izanez gero, astelehen eta ostegunero 18:00etatik 19:30ak arte Arrano elkartean.

■ **Goikobaluren eskerrona**
Joan den larunbatean Goikobaluk kontzertu berezia eskaini zuen Amaia antzokian, Argentinara joateko jaso zituzten laguntzak eskertzeko. Kontzertuan Mendelsson, Guridi, Bene-

detti eta Olaizolaren lanak, interpretatu zituzten.

■ **Alperrikako osoko bilkura**
Astelehenean, Arrasateko Udalak osoko bilkura berezia egin zuen datorren urteko udal zerga berriak onartzeko. Baina ia ordubeteko eztabaida egin eta gero, ez zuten puntu bat bera ere onartu. Izan ere, honelako proposamenak onartu ahal izateko, erabateko gehiengo beharrezkoa da. EA, EAJ eta PP alderdietako hiru zinegotzi ez ziren agertu.

■ **AGERRE PLAZAREN BERRIZTATZEA**
Santa Teresa auzoak aisialdirako duen toki eskasa konpontzeko asmoz, berriztu egingo da Agerre plaza. Erdian dagoen eraikuntza bota, inguruko etxebizitzetarako sarrerak erraztu eta zortzi jarleku eta iturri bat besteak beste, ipiniko dituzte. Lanak urtarrean hasiko dira eta uztailean edo, amaitu. Guztira, 32 milioi pta.ko aurrekontua izango du.

“Adierazgarria da irakasle ikasketek Mondragon Unibertsitatean izan duten pizkundea. Izan dira urte batzuk apenas etortzen zela ikaslerik. Azken bi urte hauetan, berri, beteta dugu eskola. Horrekin izango du zerikusirik espezialitate berriak sortu ditugula, noski. Badago hortik zehar oso zabaldua dagoen ustea, bestalde, dioena Irakasle Eskolatik irteten direnek ez dutela lanik aurkitzen. Guk, berri, badakigu azken promozioiko ikasleen erdia lanean ari dela. Hortik atera kontuak gauzak nola aldatu diren Irakasle Eskolan”.

JESUS GARMENDIA
ATBko Mahai Inguruan,
1998.10.14



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.
Lorazaintzako mantenimendua orohar.
Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



HAUTESKUNDEAK

**Arrasate Press
Legebiltzarrera?**

Iñaki Galdos oñatiarra bosgarren da EAren Gipuzkoako zerrendan. Orain lau urte EAK lau parlamentario lortu zituen. Aurten beste horrenbeste eskuratzuz gero, eta EA gobernuan sartuko balitz, baten batek utzitako aulkia betetzeko aukera izango luke Galdosek. Iñaki bi hilabetez ibili zen *Arrasate Pressen* kazetari lanetan, 1991n.

**Roman Sudupe
eta Eskola**

Roman Sudupe Gipuzkoako aldun nagusia Arrasaten izan zen EAJren hauteskunde ekitaldian parte hartzen. Atseginenez gogoratu zituen Eskola Politeknikoan egin zituen bi urteak. Frankismo garaiak ziren eta orduantxe hasi omen zen politikan. On Paulo Letonarentzat izan zuen oroitzapen gozozik.


**Arnaldo Otegi
Mondragon**

Euskal Herritarrok hautesle elkargoko zerrendaburua Elgoibarkoa da, baina bere bigarren abizenak salatzen duen bezala, badu zerikusirik Arrasaterekin. Bere amaren aita *Satorretxe* baserrikoa zen, Takolotik Aretxabaleta bidean kaminoa eta erreka kontratan zegoen baserrikoa. Gaztetan Elgoibarrera ezkondu zen eta hantxe sortu zuen familia berria.

Etorri da idazkari berria

Arrasateko Udaleko idazkari berria lanbidearen nondik norakoak ikasten ari da dagoeneko Iñaki Txintxurreta oraingo idazkariak lagunduta. Pasa den asteleheneko osoko bilkuran agertu zen estraineko aldiz.

Irundarra sortzez, Ainhoa Guenaga Munduatek 24 urte besterik ez ditu. Zuzenbide Ekonomikoan lizentziatu zen iaz Deustuko Unibertsitatean. Bere lehenengo lana izango da honako hau. Guri aitortu digunez, badaki bide zaila daukala hemendik aurrera, baina gogoz eta pozik dago.



Ainhoa Goenaga idazkari berria.


**ADMINISTRAZIOAN
SARTU NAHI**

Bere nahia administrazioan sartzea zen eta Arrasateko Udalaren aukera aprobetxatzea erabaki zuen. Horretarako, hainbat azterketa egin behar izan ditu Ainhoa udaz geroztik.

Azterketa horiek egiteko 32 lagun zeuden izena emanda, baina azkenean hamaika aurkeztu ziren soilik iraila-

ren 28an egin zen lehenengo frogara. Horien artean bi emakume soilik izan ziren, bata, noski, Ainhoa. Azkenengo azterketa pasa den asteazkenekoa, hilaren 14an egin zuen.

Bestalde, urriaren 31 arte Iñaki izango du alboan laneko zereginak erakusten, baina azaroaren lehenengo egunetik aurrera bakarrik geldituko da, Iñaki Donostiako Udalera baitoa lanera.



*J*oan den ostiralean Julio Anguita etorri zen Arrasatera botoa eskatzera. Alai zinema jendez eta komunikabidez betzen egun horretan. Saiatu ginen harekin hitz egiten, baina azken aldian izan dituen osasun arazoak tarteko edo, ez zuen hitz egin nahi izan komunikabideekin.

egizabal

**Oinetakoak
eta poltsak**



Betikoak!
Lau belaunaldiren
bermea dugu.



Ferrerias 9 • ARRASATE • 943 79 66 01

Bidekurutzeta 13 • BERGARA • 943 76 12 28

**Bakearen alde
enpleguaren alde,
... EUSKADIREN ALDE**



EZKERRAREN ORDUA

Elkartasunaren botoa

ezker batua



Arrasateko OSASUN GIDA

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1 ☎ 943 77 13 34

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 ☎ 943 79 72 16

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETZEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk ☎ 943 77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR ODONTOLOGIA INSTITUTU MEDIKUA Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ☎ 943 79 20 18

PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ☎ 943 79 53 63

PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

Gazte Txokoa Uribarrin

Udaleko Gazte Zerbitzuak behin behineko Gazte Txokoa irekiko da Gabonetan Uribarrin. Gazte Txoko honek 300.000 pezetatako aurrekontua izango du aurten eta gaur egun Uribarriko erretiratuak dauden etxean ezarriko da. Gerora, ordea, Larreako plazako Gizarte Etxera pasatuko da behin betiko. Honela, herriko gazteek hiru txoko izango dituzte aisialdia kale gorria ez den beste toki batean lagun artean gozatzeko. Gazte Zerbitzuak beste bi Gazte Txoko ditu, bata Musakolan eta bestea San Andresen. Bien kudeaketaz Txatxilipurdi elkarte arduratzen da. Uribarrikoa ere berak zuzenduko du.

Pedrotxo oraindik Granadan

Joan den astean Granadako espetxetik Langraitzera ekarriko zutela iragarri bazuten ere, Pedro Guridi preso mondragoetarrek oraindik ere Granadako presondegian segitzen du.

Egoera honek urduritasuna sortu du Pedrotxoren gurasoen artean. Hainbeste hitz egin eta gero Euskal Herriko espetxeetara ekarriko zituztela, esan liteke adar jotzea dela erabakia hainbeste atzeratzea, kontuan izanda gainera, Pedrotxo ez dagoela bat ere ondo osasunez.

Dagoeneko 18 urte daromatza espetxez espetxe eta hernia diskalak jota dago. Medikuen ustez, dituen osasun arazoak sendatzeko modurik onena ebakuntza egitea izango litzateke. Baina horretarako hona ekarri beharko lukete.

Produkzio garbia herriko enpresetan



Produkzio Garbia txostena Mondragon Hotelean aurkeztu zen.

Joan den ostiralean Produkzio Garbia izeneko txostena aurkeztu zuten Patxi Ormazabal Ingurugiro sailburuak, Ester Larrañaga Ingurugiro sailburuordeak eta German Berezibar Deba Bailarako Mankomunitateko kudeatzaileak, besteak beste. Aurkezpen ekitaldian Deba Bailarako enpresetako ingurugiro saileko arduradunak bildu ziren.

ELKARLANA

Produkzio Garbia, Mankomunitateak eta IHOBE Ingurugiro Kudeaketarako Elkarrekin Publikoak elkarlanean bultzatutako proiektua da. IHOBEk "kontzeptu berritzat" jotzen du Produkzio Garbia kontzeptua, baina "behar beharrezkoa ez diren enpresaren kostuak murriztea baita, eta hori

ingurugiro faktoreak kontuan hartuta egiten da."

Asmoa da enpresek euren produkzio prozesuetan hondakinak murriztea, azken orduko konponketetara heldu aurretik.

Polvos Metalicos "Polmetasa", Alejandro Altuna, Fagor eta Copreci dira proiektu hau garatzen ari diren enpresetako batzuk. Guztiek euren produkzio prozesuak berrantolatatu dituzte, produkzio prozesu horretan hondakinak gutxitzeko bitartekoak jarri. Orain arte garbikariak, olioak, filtroak eta antzekoak izan dira hobekuntza plan horretan landu direnak.

Industria hondakinak gutxitzeaz eta kudeatzeaz gainera, gastuak murriztea ere lortu dute zenbait kasutan. Alejandro Altunako Inguru-

giro eta Kalitate zuzendaria den Jesus Santa Cristinak dioenez, "ez da beharrezkoa inbertsio handiak egitea, nahiz eta hori beharrezkoa den hone-lako plan bat burutzeko. Maila txikiagoan ere har daitezke zenbait neurri hondakinak gutxitzeko: esaterako, erabiltzen diren olio ontziak birziklagarriak izan daitezela".

AURREKARIAK

Hondakinak gutxitzeko plana Urdaibaiko bailaran jarri zen abian lehenengoz. Hango emaitza onak ikusirik, Deba Garaiko, Goierriko eta Urolako bailaretan aplikatzea egoki ikusi zuten. Gauzak horrela, Produkzio Garbiaren txosten honetan 33 enpresaren adibideak jasotzen dira, guztiak Deba Garaia bailarakoak.

Gaur egungo kooperatibistaren erradiografia

Joan den ekainean TU-Lan-kide aldizkariak inkesta bat egitea enkargatu zion Siadeco enpresari. Gaia: kooperatibistak. Siadecok galdetegi zabal bat prestatu zuen eta 600 kooperatibistaren artean lan-du zuen. Emaitzak aldizkariaren azken alean agertu dira.

Ateratako emaitzetatik batez besteko kooperatibistaren erretrato robota egin daiteke. Horrela, bada, esan daiteke batez besteko kooperatibista gizona dela, 40 urtekoa, ezkondua, bere burua katolikotzat duena eta kooperatibetan 18 bat urte dabilena lanean, 1,81eko lan indizearekin. Horrek esan nahi du batez besteko kooperatibistak hilean 300.000 pta. gordinak irabazten dituela.

10etik 8k esaten dute informazio ona dutela kooperatibari buruz. Erdiak esaten du kooperatibetan dagoen lan giroa nahiko ona dela. Laurden batek, berriz, oso ontzat jotzen du lan giroa. Hirutik bi oso konforme daude egiten duten lanarekin.

Lautik hiru oso bat datoz kooperatiben helburuekin. Dena den, 40 urtetik gorakoak identifikatuago sentitzen dira, gazteak baino.

Hizkuntzei dagokienez, bostetik hiruk badakite euskara. Eta dakitenen artean, gehienek badakite irakurtzen eta idazten. Taldeka, euskara gehien dakitenak industria taldekoak dira, %63, eta gutxien dakitenak banaketa taldekoak, Eroskikoak alegia: %40.

Ingelesarekin, berriz, 10etik batek bakarrik daki Shakespearearen hizkuntza. Hemen gazteek dute alde: hizkuntza gehiago dakite zaharrek baino.



Gipuzkoako Foru Aldundiak eta SPRILUR erakundeak izenpetu zuten ituna.

Industria indartzeko hitzarmena

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta SPRILUR enpresak, industria azpiegiturak bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten asteazkenean Mankomunitatearen egoitzan. Deba Garaiko Industrialdea SA izeneko proiektu honetan, Bergarak, Aretxabaletak eta Oñatik parte hartu izan dute orain arte, baina hemendik aurrera, Arrasate ere sartuko da. Hitzarmen hau sinatzeko ekitaldian honako hauek egon ziren: Javier Retegi Eusko Jaurlaritzako Industria sailburua, Guillermo Etxenike Ekonomia Sailko diputatua, Jose Miguel Agirre SPRILUR enpresako kontseilaria eta Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Bergarako alkateak.

HITZARMENAREN HELBURUAK

Proiektu honen bitartez, Deba Garaian dauden lau industrialdeak batu nahi dira.

Izan ere, industria azpiegitura berrien sorrerak esparru zabalagoak eskatzen dituzenez, beharrezkoa da herri erakundeek bultzatuta, lehendik dauden industrialdeak batzea, eskualde mailako elkarteak eratuz. Honek, gaur egun enpresa berriak eraikitze hain beharrezkoa

den industria lurraren eskasia konpontzeaz gain, lanpostu gehiago ere sortuko lituzke. Deba Garaiko Industrialde berri hau garatzen hasteko egin behar den lehenengo urratsa, Aretxabaletako Industrialdeko ekintzak Arrasateraino zabaltzea izango da.

Euskararen Kontseilua

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bileran egin zuen joan den asteazkenean Monterronen, herrian euskaraz lan egiten duten hainbat talderen ordezkariekin. Euskararen normalizazio bidea azkartzeko lanean ari da Kontseilua. Asteazkenean, Euskal Herrian sinatu behar den ituna zertan

datzan eta herrian nola gauzatu beharko litzatekeen azaltzen aritu zen Larraitz Mendizabal, Kontseiluko Gipuzkoako koordinatzailea. Herrian hainbat erakunde eta elkarte ari dira hitzarmen horren inguruan lan egiteko asmatan. Oraindik, ordea, ez dute erabaki zer eta nola egingo duten.

Merkatariak euroaz galdezka



William Gilbert euroaz hitz egiten.

69 egun falta dira euroaren ezarpenerako. Arrasateko merkatariek prestazko ari dira ordurako. Astelehen arratsaldean hitzaldia izan zuten Eskola Tailerlean, euroaren inguruan.

Hizlaria William Gilbert izan zen, Gipuzkoako Merkataritza Ganberako ordezkaria. Europako diru bakarraren ezartzeak merkatarientzat ekarriko dituen ondorioak aztertu zituen. Banan-banan, gai hauek joan zen jorratzen: berehalako ondorioak, euroa ezartzeko egutegia, aldatu beharreko gauzak

eta honek guztiak kontsumitzaileengan izango duen eragina.

Haren iritziz, hemen go merkatariek eta industria oraindik ez daude presaturik, euroak ekarriko dituen aldaketa guztiei aurre egiteko. Asko esportatzen duten enpresek datoren urtarilaren letik aurrera izango dute euroarekin lana egiteko aukera. Merkatariek, berriz, denbora gehiago beharko dute.

“EUROTIK EURORA”
Astelehenean bertan, Ibai-Arteko zenbait dendatan

hasi ziren erakusleihoetako prezioak eurotan eta pezetatan adierazten. Hil honen bukaerarako, bestalde, Ibai-Artek “Eurotik Eurora” egitaraua prestatu du, Arrasateko umei begira. Txatxilipurdi elkar-tearekin batera egingo da. Guztira 3.000 bat ume hartuko dute parte. Helburua argi dago: gazte txoek euroa ezagutzea. Parte hartzen duten ume guztiek oparitxo bana jasoko dute.

Ibai-Arte elkarteak 100 bazkide ditu Arrasateko merkatarien artean. Gehienak erdialdekoak dira.

Euroa

Kontsumitzaileak izango du defenditzerik zenbakien biribiltzeak gehiegikeriak eragiten baditu?

Oraindik ez da gai horren inguruko erabakirik hartu, baina bai agintariak eta baita kontsumitzaileen elkarteak “behatokiak” jartzeko aukeraz pentsatzen ari dira. “Behatoki” horietan hiritarrek salatu ahal izango lituzkete euroaren aitzakiaz egindako gehiegikeriak.




Euro baten balioa

167,2 PTA

OPEL ASTRA BERRIA



OPEL 

TAKOLO AUTOAK

4 atedun Opel Astra berria jadanik eskuragarri duzu.

ZATOZ ETA PROBATU!!

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE




ONDO HORNITUTA

Egualdia aurka izanda ere, gazte hauek ez ziren kikildu eta zentral eolikoan kontrako kanpaldian parte hartzera

animatu ziren. Ikusten duzuenetz, ondo preparatuta joan ziren, butano eta guzti.

GAZTE GARA GAZTE


Argazkiak musika izango balu, guztiok erritmo bizian ibiliko ginateke dantzan, Markelen martxarekin. Etxekoak eta lagunak ere airean erabiliko ditu. Hala eta guztiz ere, zorionak opa dizkiote urriaren 26an. Gainera, maite zaituztela diote, aizu. Zorionak motel!





DENERAKO MUTILA!

Agian ezagutuko duzue. Gure Kike da! *Arrasate Presseko* aurtengo gida komertziala egiten dihardu, baina ikusten denez, baditu beste hainbat zeregin ere. Merkataria, txalapartaria, bertsozalea, okin eta nork daki zer gehiago izango den! Ama batek baino gehiagok gustura hartuko lukete alabarentzat.



HAURRAK IRABAZLE

Bada, ez. Oraingoan ez dute futbol, pilota edo antzeko txapelketarik irabazi, ez. Perretxikoei esker lortu dituzte bi kopa eder horiek. Mendira irten, perretxikoak batu eta azokan irabazle nagusiak izan ziren. San Viator ikastolako seigarren mailako haurrak gustura asko ibili ziren Perretxikoen VIII. Lehiaketan.

GOXO-GOXO EGOTEKO MODUAN

Asteburua bukatzen delako igandero izaten dugun beheraldiari aurre egiteko bide ona da haxe. Iluntze partean beheko tabernara jaitsi eta kafesnetxo bero baten aurrean *Maietx* bezalako talde baten musika goxoa entzun lagun artean.



Hauteskundeetan

Datorren igandea egun berezia izango da gehienontzat. Gure herria nork gobernatuko duen aukeratzeko ahalmena izango dugu. Erraza da. Alderdi politikoa aukeratu, dagokion txartela hartu, hautestontzian sartu eta listo. Baina guretzat hain sinplea den hau posible egiteko, pertsona eta bitarteko ugari jarri dira lanean. Epaile, abokatu, idazkari, udaltzain, garbitzaile eta beste asko lan eta burukomin nahikotxo pairatzen ari dira azken hilabeteotan. Hauteskundeen zurrumbilo honetan alderdi politikoak ez dira, gero, lan egiten duten bakarrak.

Mondragoeko udalletxean hauteskundeetarako dei ofiziala egin baino lehen, Udala Brigadako Alfredo eta Puik biltegian gordeta dagoen hauteskunde materialaren egoera aztertzen dute, guztia ondo dagoela ziurtatzeko.

Eusko Jaurlaritzak iraileko lehenengo astean hauteskundeetarako deia egin zuenean, Iñaki Txintxurreta idazkariak alderdi politikoei propaganda ipini eta mitinak edo bestelako jendaurrekoak egiteko lekuak erabaki zituen. Mondragoen, propagandarako metalezko bi panel daude, bata Sebero Altuben eta bestea Kontzezinon. Kale argietan ere eskegitzen dira banderak. Kale argien banaketa alderdi guztien artean egiten da, beti irizpide berdinak erabiliz.

PORRUREN LANKIDEAK


Hurrengo pausoa irailaren azken egunetan eman zen. Bozketa egunean jarriko diren 30 hautemahaietan egongo diren 270 pertsonen izenak atera ziren zozketa bidez. Pertsona hauei udaltzainekin eraman zizkieten jakinaraz-

penak etxez-etxe. Joan ezin zirenek ere egun batzuk izan zituzten alegazioak aurkezteko Bergarako epaitegian, betebeharrak hori ken ziezaiten. Izan ere, epailearen esku dago pertsona bakoitzak emandako arrazoiak onartu edo ez. Bitartean, EAEko Hauteskunde Batzordeak hautagai zerrendak aldarrikatu zituen.

KANPAINA POLITIKOA

Behin puntu honetara heltzean, Iñaki Txintxurreta Bergarako Epaitegiari jakinarazi zion alderdi politikoko bakoitzari dohaineko propaganda non egitea tokatu zitzaion. Orduan hasi zen hauteskundeetako benetako zalaparta. Hauteskunde kanpaina guztietan bezala, alderdietako militanteak kalera atera ziren —aurten beharbada ez hainbeste— nork bere eskaintza politikoa ezagutarazteko asmoz.

Kanpaina hasi zenean, orain hamabost egun, udalletxeko langileak azken xehetasunez arduratu ziren: eskolentarako argibideetarako abisuak prestatu, Auzo Lagunekin hauteskunde osteko garbiketara hitzartu, eta antzeko lanak burutu. Larunbatean,



Igandea baino lehen hautestontziak zigilatu beharra dago.

bozketa egunaren bezperan, alegia, Xabi, Alfredo, Pui eta Brigadako beste bosten hartean hautestontziak, kabinak, kartazalak, txartelak eta beharrezkoa den guztia eskoletara eraman eta behar den moduan jarriko dituzte. Noski, hau egiteko aurreko egunetan jo eta fuego ibili dira hautestontziak garbitu, kabinak montatu, txartelan heltzen diren ala ez itxaroten... Guri behintzat, nahiko aspertuta dabilzala kontatu digute baxu-baxu.

BOZKETA EGUNA

Goiz hasiko da egun berezia hau. Goizeko 07:30etatik 8:00ak artean, Iñakik izendatutako 15 laguntzaile herrian jarriko diren 30 hautemahaietara joango dira. Brigadako Juan Andres eta Jose Ra ere bueltaka ibiliko dira egun guztian zehar, badaezpada. Mahaietan egon behar direnak agertu diren edo ez egiaztatu behar dute eta gauzak nola egin esplikatu. Norbait faltaz gero, haren ordezkari deitu behar-

ikusten ez dena



Pui, Udal Brigadako langilea, hautesontziak txukuntzen ari da iganderako dena prest egon dadin.

“Bozketa egunean, Brigadako Juan Andres eta Jose Ra eta udaletxeko Iñaki idazkaria, goizeko lehen ordutik gaueko 22:00ak arte lanean arituko dira”

Hauteskundeak EAEn

- Sei garren aldiz aukeraturiko dugu Eusko Legebiltzarra.
- Hautesleak: 1.821.456.
- 22 milioi txartel kaleratu dira, paper birziklatuan.
- 2.477 hautesmahai jarriko dira.
- 12.400 lagun arituko dira lanean dena ondo atera dadin.
- 3.000 ertzain izango dira lanean.
- 70 milioi pta erabili dira partaidetza bultzatzeko.
- 650 milioi pta inguru erabili dira hauteskundeak eratzeko; 357 pezeta hautesle bakoitzeko.

Eusko Jauriaritzako Herrizaingo Sailak emandako argibideak.

ko diote. Une delikatua da hauxe Iñaki, Juan Andres eta Jose Rarentzat. Behin baino gehiagotan gertatu izan da agertu beharrekoa ez azaltzea eta ordezkoren bila ibili behar izatea. Izan ere, bai titular zein ordezko askok piper egiten dute maiz goizeko ordu txiki horietan eta ez dira hautesmahaietara agertzen. Inoiz gertatu izan da mahaikidea sekulako zazpalarekin agertzea eta etxe-

ra bidali behar izatea.

Arazorik ez dagoela ziurtatu ostean, Iñakiri jakinarazi eta alde egiten dute laguntzaileek. Bitartean, mahaikideek egingo dute lan. Botoak legeak arautu ahala ematen direla ziurtatuko dute egun guztian zehar. Ondoren, iluntzeko 20:00etan idazkariaren laguntzaileak eskoletara itzuli eta botoak arazorik barik zenbatzen direla egiaztatuko dute, ondoren emaitzak idazkariari jakinaraziz.

Idazkariak gauza bera egingo du Eusko Jauriaritzarekin. Gaueko 21:00-22:00ak inguruan. Lanean ibili diren guztiak lasai joan daitezke ohera. Batek baino gehiagok hasperen sakona egingo du, seguru. Hedabideen ordua da orain.

DIRU KONTUAK

Lan hau guztia ez da dohainik egiten, noski. Diru potoloa gastatzen da hauteskundeak prestatzen. Arrasaten guztira 2.300.000 pezeta gastatuko dira aurtan. Horieta 900.000 pezeta mahaie-tan egun guztian zehar egon behar diren herritarren artean banatuko dira, 10.000 pezeta bakoitzarentzat. Herritar hauek igande gauean bertan jasoko dute ordain-saria.

Eta gainerakoa garbitzaile, brigada, udaltzain, udal langile eta beste hainbaten artean. Oraingo hauteskunde hauetan dirua Eusko Jauriaritzaren Barne Saitetik dator zuzenean.

Ubane Madera ■

Bonba Taldieko kideak

IKER ZAITEGI ETA BITTOR ARRIARAN

“Zaldibar txapelketa herriarentzat egiten den gauza da”

— Astelehenean egin zenuten bilera, ondo joan zen?

— Bai, jende asko joan zen. 50-60 talde bildu ziren, sekula baino gehiago.

— Noiz hasiko da txapelketa?

— Urriaren 31n hastea espero dugu.

— Berritasunik?

— Sari berezi bat emango zaio jokalaria onenari: Lopez Rekarte saria, hain zuzen ere.

— Nolatan zuek Zaldibar txapelketa antolatzen?


— Inork ez zuen hartzen ardura eta uste dugu mondragoetarrentzat txapelketa oso garrantzitsua dela. Ezin bertan behera gelditu. Hori dela eta, harremanetan jarri ginen aurreko antolatzaileekin txapelketari eusteko. Gainera 1.000 lagunek baino gehiagok hartzen dute parte. Gu futbol talde bat gara, beraz, aurrera egitea erabaki genuen; momentuz aurten eta gero ikusi egin behar.

— Dirua nondik aterako da?

— Talde bakoitzak 20.000 pta. ordaindu behar ditu, baina gure ustez udalak ere laguntza eman beharko luke. Azken finean herriarentzat egiten den gauza da. Milioi eta pikuko gastua aurreikusten da. Iaz dirua galdu zuten eta horretarako ez gara sartzen antolaketan.

— Harremanetan zaudete aurreko antolatzaileekin?

— Bai, eta asko lagundu digute, Aritz Azkarragak berak asko lagundu digu eta oraindik ere horretan dihardu.



ATLETISMOA Gil txapeldun Durangaldean




Durangaldeko maratoi erdia jokatu zen joan den igandean Zaldibar eta Atxondo artean. Emakumezkoetan, Mari Jose Gil mondragoetarrak urrezko domina eskuratu zuen beterranoen mailan. 58 urterekin, 21.100 m.ko proba 1h. eta 45'tan egin zuen eta Espainiako lehena izatea lortu zuten. Cesar Diezek, berriz, 1h. 21' behar izan zuen ibilbidea bukatzeko. Jabier Mentxakak, Diezek baino zortzi minutu gutxiago behar izan zituen helmugaratzeko.

KARATEA Euskal txapeldunak



Basaurin izan ziren larunbatean Jorge Sanchez, Maikel Talledo eta Erik Martin, Saioa gimnasio-ko karatekak, Euskal Herriko txapelketan. Hirurak Gipuzkoako ordezkari zarekin aritu ziren. Haur mailan, Gipuzkoak eskuratu zuen txapela, eta hortxe aritu ziren Jorge eta Maikel. Juniorretan aritu zen Erik, baina honek ez zuen zorte bera izan. Asteburu honetan Usurbilera joango dira. Hantxe promozio txapelketa jokatu dute Saioa Karate Gimnasioko kirolariak.

ESKUBALOA Berriz ere kale




Arrasate Eskubaloi Taldeak berriz ere galdu zuen, oraingoan Gascan Portugaleta taldearen aurka, etxean. Larun-

batean jokatuako partida 18 eta 20 amaitu zen. Arrasate-arrak ondo hasi ziren, baina Portugaletekoek etxeko kaleak aprobetxatzen jakin zuten eta lehenengo zatiaren amaieran, jadanik 6 eta 9ko emaitza zegoen markagailuan. Iraolak, Loitik eta Morak lau-na gol lortu zituzten.

Asteburu honetan Zumaia-ko Pulpo taldearen aurka arituko dira. Norgehiagoka gogorra izango da Zumaia-ko ondo ari dira eta ligan. Partida Zumaian, larunbatean 17:30etan.

Haur mailan Arrasatek 12 eta 15 galdu zuen Bergararen aurka. Gazte mailan, 14 eta 21eko galdu zuten mondragoetarrek Arrateren aurka.

FUTBOLA Buru makur derbian



Preferente mailako Mondra taldeak 0 eta 1 galdu zuten joan den igandeko derbian. Etxekoak nahiko lasai aritu ziren partidaren lehenengo mintutuetan eta horixe aprobetxatu zuten aretxabaletarrek markagailua alde jartzeko. Gola Idigorasek lortu zuen. Aste honetan Lazkaoren aurka arituko dira.

Maila baxuagoetan emaitzak ez ziren hobeak izan. Emakumeei dagokienez, Esti Loitiren neskek 0 eta 5 galdu zuten Gure Txokoaren aurka. Ohorezko ligan ari diren gazte mailakoak ere 4 eta 2 galdu zuten Aldapetarrak-en aurka. Lehen urteko gazte mailakoak 0 eta 2 galdu zuten Pasaiaren kontra eta lehen urteko haur mailakoek 0 eta 4 egin zuten Lagunak taldearen aurka. Garaipena bigarren urteko haur mailakoek lortu zuten, 1 eta 4 Urkiren aurka eta, haur mailakoek, 9 eta 0 Koxkasen aurka.

Herri Aurrerakoia Guztiontzat

Euskal hiritarroi geure etorkizuna erabakitzeke aukera emango digun esparru politikoa dugu helburu. **Elkarrizketaren** bidez iritxiko den bakea eta adiskidetzea lortu behar ditugu.

Langabeziari aurre egingo dion lan banaketa duina da gure xedea.

Euskararen benetako indarberritzea da gure helmuga.

Euskal eredu sozialdemokrata da gure jomuga.

Alkartasuna eta bizitzeko egokitasun handiagoa izango dituen herria eraiki nahi dugu.

Berezko hezkuntz sistema integratzaile eta kalitatezkoa gauzatu behar da.

Ekonomi-esparru lehiakor eta berriztatzailea eskuratu behar dugu.

Orain duzu aukera,

**EMAN
BOTOA**



eusko
alkartasuna



Miren Garai

ESTETIKA ZENTRUA



Zarugalde 23, 2. ezk. Tel: 943 79 96 90



Lehen



Ondoren

- Aurpegiaren garbiketa
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Depilazioa argizari hotzaz eta beroaz
- Solariuma

-
- *Betazalen eta poltsen zirujia (blefaroplastia)*
 - *Aurpegiko azalaren luzapena (lifting)*
 - *Tripa murriztea (lipektomia)*
 - *Titiak txikitzea eta banditzea*
 - *Zimurrak*
 - *Liposukzioa*



San Viator ikastolak eskerrak eman nahi dizkie joan den igandeko VIII. Perretxiko Lehiaketaren antolakuntzan parte hartu zuten ikasle eta guraso guztiei. Halaber, bereziki eskertu nahi du Rumba Taberna, Gipuzkoako Kutxa, Arrasateko Udala, Agirre Autozerbitzua, J.J. Taberna eta Gatzaga Jatetxeak emandako laguntza. Eskerrik asko guztioi!!

Arrasateko saskibaloit taldea

Arrasate Saskibaloit taldeak ondo baino hobeto hasi du denboraldia. Larunbatean ere 87 eta 75 mendean hartu zituzten Iruñeko Usurlinas taldekoak. Danel Aiastuik eta Zesar Azka-

ratek zuzentzen duten taldeak denboraldi ona egingo du, dudarik gabe eta iaz galdutako maila berreskuratzeko lan egingo dute. Larunbatean San Cernin iruñarren aurka arituko dira.



Danel Aiastui
Basea/entrenatzailea
26 urte



Zesar Azkarate
2. entrenatzailea
26 urte



Asier Dublan
Basea
19 urte



M. San Migel
Basea
18 urte



J. Gamarra
Hegalekoa
21 urte



Jokin Lazpiur
Hegalekoa
18 urte



Iban Garrido
Hegalekoa
18 urte



Eugenio Ayala
Hegalekoa
23 urte



Jon Basurko
Hegalekoa
29 urte



Iker Errasti
Pibota
21 urte



A. Mallabiabarrena
Pibota
21 urte



Eneko Alvarez
Pibota
22 urte



Eneko Gorostidi
Pibota
26 urte

Errugbikoek ere ekin diote ligari

Denboraldi berriari ekin diote Arrasateko Errugbi taldeko mutilek. Patxi Gorosabelek entrenatzen dituen senior mailako mutilek joan den asteburuan ekin zioten ligari eta espero ez bazuten ere, garai-pena eskuratu zuten Igorren, Arratiako Txekorren aurka. 10 eta 28 gaintu zituzten Igorrekoak. Mondragoetarren taldean Potato izan zen jokalaririk onena. Lau entseiu lortu zituen eta Patxi eta Maidaganeekin batera, partida ona egin zuten.

Datorren astean Arrasatean jokatzea tokatzen zaie. Etxean jokatzen duten lehenengo norgehiagoka izango da. Garagartzan arituko dira Universitario 15 bizkaitarren kontra. Norgehiagoka arratsaldeko 16:30etan izango da.



Beteranoen taldeak Garagartzan jokatu zuen azken partida.

GAZTE MAILAKOAK

Bittor Rodriguezen taldeak asteburu honetan ekingo diote denboraldiari. Orain arte lagun arteko partidak jokatzen aritu dira eta larunbatean 98-99ko lehen norgehiagoka izango dute.

Etxean ekingo diote ligari eta aurrez aurre Gernikako Errugbi Taldea izango dute.

Jokatu zuten azken neurketa Igorreko Arratiako Txekorren kontra izan zen, baina hauek ez zuten seniorrek bes-

teko zortea izan. 30 eta 15 galdutuz.

Etxean hasteak irabazteko grinak pizten ditu. Gazte mailakoek, beraz, arratsaldeko 15:00etan ekingo diote jokoari.

ADELAIDA MAIDAGAN (CIM-EKO ZUZENDARI OROKORRA)

“Gure eskaintza da gehien

Adelaida Maidagan Lazkano 37 urteko arrasatearra Ingeles filologian lizentziatua da. Enpresen kudeaketarako master bat ere egin zuen Donostiako ESTEn gero. Bera da CIM hizkuntza eskolako zuzendari orokorra ere. Hirugarren ikasturtea darama kargu hori betetz. Dena den, aspaldidanik dihardu CIMen ingeles eskolak ematen, 21 urterekin hasi baitzen irakaskale gisa.

— Zer da CIM?

— CIM hizkuntza zerbitzuak eta hezkuntza eskaintza duen enpresa bat da, kooperatiba gisa lan egiten duena. Oñatin ere badu beste zentru bat. Orain “bai & by” proiektua dela eta, Gasteizen eta Bilbon bi zentru berezi zabaldu dituzte elkarlanean CIMek eta Didaktiker enpresak.

— Zer dauka CIMek beste hizkuntza eskolek ez daukatenik?

— Gauza asko. Hasteko, CIMek daukan eskaintza oso akademia gutxik dute. Zazpi urtetik gorako umeetatik hasita egiten du bere eskaintza. Adin horretatik 14 urtera bitarteko 500 haurri ematen dizkie eskolak gutxi gorabehera. 14 urtetik 18ra bitarteko beste horrenbesteri ere bai. Helduentzat ere ingelesa, alemana, italiara eta frantses eskolen eskaintza egiten dugu. Enpresa arloan ere espezializatuta gaude eta mota askotako ikastaroak eskaintzen ditugu. Tamaina aldetik ere ez dugu parekorik: 80 pertsonak lan egiten dugu CIMen eta honek Euskal Herriko hizkuntza enpresarik handiena bihurtzen gaitu.


— Orain “bai & by” proiektuan ingelesa eta euskararen irakaskuntza multimediarekin duzue.

— Enpresa eta hezkuntza proiektu bat da, hizkuntza arloan dauden zerbitzu guztiak eskaintzeko, multimedia sistemarekin. Sistema hau oso aurreratua da, eta onura handiak ditu. Ikaskuntza prozesua ordenagailu bidez egiten da, eta hori dela eta, ikaslea ez dago

talde baten menpe. Nork bere erritmora ikasten du. Gainera lortutako helburuengatik ordaintzen da eta ez denbora epe batengatik.

— Eta hori nola da posible?

— Lehenik eta behin, ikasleak hizkuntza zein helburutarako ikasi nahi duen adierazi behar du: testuak irakurtzerakoan hauek ulertzeko, behar bezala komunikatzeko, titulu bat lortzeko... Orduan ikaskuntza plana egiten da epe zehatz bat ezarriz. Epe horretan helburu hori lortu ez badu eta derrigorrezko baldintza betez gero (asteaz zehar ordenagailu aurrean hiruzpailau ordu bataz beste igarotea), helburu hori erdietsi arte epe



“Irakaskuntza prozesua ordenagailu bidez egiten da, eta ikaslea ez dago talde baten menpe”

berreizten gaituen ezaugarria”

mugabea ematen zaio ikasleari.

— Zeren ondorioz sortu da “bai & by”?

— Enpresa hezkuntza proiektu hau CIM eta Didaktikerren elkarlanaren ondorioz sortu da. CIMek 25 urteko esperientzia du hizkuntza irakaskuntzan. Didaktiker enpresa, ostera, oso aditua da softwarea garatzen. Beraiek landu dute DDK System, “bai & by” praktikan jartzen duen sistema. Gure helburua sistema honen bidez euskara eta ingelesa irakastea da. Momentuz Bilbon, Gasteizen, Oña-

tin eta Arrasaten jarri dugu abian sistema hau lau zentruetan. Bigarren epe batean beste hiriburu batzuetara ere joango gara, frankizia erabiliz.

— Programa honen bidez beste hizkuntza batzuk irakasteko asmorik ez duzue?

— Momentu honetan plataforma integrala ingelesa eta euskara irakasteko garatuta dago. Dena den, epe ez oso luzera alemana irakasteko ere erabili nahi dugu.

— Sistema honek izan du eraginik zuen zentruotako

matrikulatze kopuruetan?

— CIMen sistema honekin hasi ginenean beste izen bat zuen. 97ko otsailean hasi ginen, 35 ikaslerekin. Hurrengo ikasturtean 200 ikasle eman zuten izena. Aurtengo aurreikuspena eginda, sistema honekin 350 ikasle behintzat izatea espero dugu, Arrasaten. Bestalde lau zentruetan 98-99 ikasturtean 1.500 ikasle izatea aurreikusi dugu.

— Euskal Herritik kanpora aterako duzue “bai & by”?

— Bai, eta eskaerak ere jaso ditugu. Bartzelonatik eta

Madrildik egin digute eskaera, batez ere ingelesari dagokionez.

— Sistema honek ez du kolokan jarriko hainbat hizkuntza irakasleren lanpostua?

— Agian bai. Argi dago sistema honekin irakasle gutxiago behar dela, baina nik uste dut momentu honetan sistema tradizionalaren ikuspegitik begiratzen diogula horri. Gainera, sistema tradizionaletik multimedia bitartekora prozesua progresiboa izango da eta, beraz, moldatzeko denbora izango dugu. ■

Adi egon ATBren programazio berriari!!

| ordutegia | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA | ordutegia |
|-------------------------|---------------------|---------------------|---------------------|---------------------|---------------------|--------------------------------|--------------------------------|-----------|
| 13:30 | Albiste aurrerapena | Albiste aurrerapena | Albiste aurrerapena | Albiste aurrerapena | Albiste aurrerapena | Asteko saiorik onenen errepika | Asteko saiorik onenen errepika | 13:30 |
| 13:35 | Errepika | Errepika | Errepika | Errepika | Errepika | | | |
| 19:30 | Jolastplast | | | | | | | |
| 20:00 20:30 21:00 | Berriak | Berriak | Berriak | Berriak | Berriak | | | |
| 21:00 | Mahai ingurua | | | | | | | |
| 21:00 | Mondrasport | | | Kaleidoskopio | Astebete | | | 21:30 |
| 21:30 | | Musiklasik | | Ekilan | | | | 21:30 |
| 21:30 | | Munduari bueltaka | Aurrez aurre | Soinuz blai | Soinuz blai | | | 22:00 |

Ruper Ordorika, ibilian "dabilen harria"

Ruper Ordorika oñatiar kantariak "Dabilen Harria" bere azken diskoa kaleratu berri du. Lehen diskoa, "Hautsi da Anphora", 1980an atera zuen, 24 urte zituela. Ordutik 28 urte pasatu bada ere, Ruperri ez zaio "goroldiorik lotu". Kantatzea betidanik gehien gustatu izan zaiona den arren, kantagintzan berandu hasi zela dio. Bakar-lari bezala egin duen ibilbidean atera duen seigarren diskoa izan du honako hau. Orain arte ateratako diskoetatik zein duen gustukoaren galdetzean, Ruperrek beti eragin handiena azkenak izaten duela dioen arren, egindako sasoiaren disko bakoi-tzak norberaren konpromiso guztia dakarrela ere gaineratu du.

IZENAREN NONDIK NORAKOA

"Dabilen harria" izenarekin bataiatu du azken disko hau. Axularren esaera batetik etorri zitzaion ideia: "dabilen harriari ez zaika goroldiorik lotzen". Ruperrek disko hau ateratzeko egindako bidaia-ekin lotzen du aipatu esae-ra. "Horixe da munduan aurrera egiteko modua, ez eransteke modua. Diskoak ibiltzearen ondorioz egiten ditugu".

Diskoan lagun izan dituen hiru musikariak atzeritarrak dira. Ben Monder gitarra jole handi legez definitzen du Ruperrek. Bajista, Skuli Sve-rrison, Islandiakoa da, nahiz



Ruper Ordorikaren bisita izan genuen ATBn joan den ostegunean.

eta New Yorken bizi den. Bateria jotzen, berriz, Kenny Wollesen aritu da. Haien bidaia finantzatzeko kontzertu batzuk antolatu zituzten Euskal Herrian, eta ondoren Azkaraten grabatu zuten disko-a. Musiko hauek "puroak" dira Ruperren hitzetan, ez baitaukate iritzi komertzialik

eta horrelako kezkarik.

IBILIAN GUSTURA DABIL

Ruperrek kantagintzan urte luzeak daramatza, bai. Hala ere, oraindik "ibiltzen" jarraitu nahi du; dabilen horretan gustura "dabilen" seinalea, akaso. Motibazio arazoren bat edo beste ere izan omen du

inoiz, baina hori grabatu oste-ko sentsazioa dela dio gehien-bat Ruperrek: "prentsa, defenditu beharraz... dago lotuta hori. Nik oraindik musikari dagokionez, gauza asko ditut ezagutzeko, eta oso zalea naiz horretara. Ardura bat edukitzen dut eta gustatu egiten zait ika-ragarri. Jendaurreko lanek, ordea, asko erretzen naute, norbera oso makal izaten bai-ta kritikaren aurrean".

MUSIKA ETA LETREN UZTARKETA

Bere burua kantuegile legez definitzen du oñatiar honek: "kantua genero bat, letra eta doinuaren arteko uztarketa berezi bezala bizi dut. Horrek badu bere bide propioa, eta hori ikasten saiatzen naiz. Kantuegile aurretik zalea ere banaiz, eta orduan musika entzuten saiatzen naiz, hori plazer handia baita niretzat". Uztarketa horretan, bere buruak eskatzen dion neurrian pittin bat harantzago joaten saiatzen da Ruper, eta kantuari bide markatuago bat ematen. Hortik aurrera, bi hari dira kantari hau lotzen dutenak: bata bertikala, bere munduari, hizkuntzari eta afektuari lotzen duena. Bestea berriz, horizontala; bere denborari, hots, rockaren denborari lotzen duena. Bi ardatz horien jirabiran dabil bakar-lari honen musika. Eta ibilian jarrai deza-la luzaroan ere, harriari goroldiorik lotu ez dakion eta musika-kazaleek bere musikaz gozatzu jarrai dezaten.

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

BASABE
JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABALETA

Monte
taberna
Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

JUAN CARLOS MURILLO, ARGAZKILARIA

“Deskonexioa” argazkiarekin koloretako lehen saria irabazi du

Juan Carlos Murillo 29 urteko arrasatearrak orain dela sei edo zazpi urte erosi zuen bere lehen kamera. Ordudanik argazkiak ateratzen eta inguruko sariketetan parte hartzen dihardu. Oraintsu, “Gazteak eta komunikazioa” IX. Argazki Lehiaketan lehen saria eskuratu du koloretako argazkien sailean.

— Zenbat lehiaketatan hartu duzu parte orain arte?

— Arrasaten zortzi edo bederatzita lehiaketatan hartu dut parte. Kanpoan, berriz, lau edo bost lehiaketatan, baina hauetan ez dut zorterik izan.

— Arrasaten beste saririk eskuratu duzu?


— Bai. Inauterietako lehiaketara argazkiak aurkeztzen hasi nintzen, eta hor lau urtez jarraian eskuratu nuen sariren bat edo beste. Beste sari bat ere eskuratu nuen AEDk antolatzen duen lehiaketan. Aurten saria eskuratu dudan honetan, berriz, hiru aldiz hartu dut parte, baina aurten soilik eskuratu dut saria.

— Horietako zer sarik eman dizu pozik handiena?

— Lehenengoak. Horrek animatu ninduen argazki gehiago atera eta lehiaketa gehiagotan parte hartzera.

— Non ikasi duzu argazkiak ateratzen?

— Nik neuk ikasi dut. Irudia eta soinua ikasi nuen Andoainen, eta beharbada zaletasuna hortik etorriko zait. Piskanaka-piskanaka hartu dut esperientzia, argazkiak atereaz. Dena den, nire anaia Antoniok ere izugarri lagundu dit, bera ere aritzen baita argazkiak ateratzen. Horretaz gain,



argazkilaritzari buruzko aldizkariak ere erosten ditut, eta horietatik asko ikasten da.

— Deskonexioa izena jarri diozu zure argazki sarituari. Zergatik?

— Argazki hau emakumeen atalera aurkeztu nuen. Gorputz baten gainean proiektutako “doitze karta” bat erakusten du argazkiak, telebista kateek emisioa bukatzen dutenean jartzen duten horietakoa. Horrekin zera adierazi nahi izan nuen: batzuetan horrenbeste hedabidez inguratuta gaudenez, deskonektatzeko beharra sentitzen dugula.

— Nola atera duzu argazkia?

— Proiektore bat erabili dut, gorputza pantaila bezala erabiliz.

— Argazkiak, zuri-beltzean ala koloretan?

— Normalean koloretan egiten ditut. Zuri-beltzez ez daukat oraindik trebetasun handirik, lana oso ongi egin behar baita; bai argazkiak ateratzean eta baita errebelatzerakoan ere. Beharbada aurrerago saiatuko naiz horrelakoak egiten.

“Zuri-beltzez ez daukat oraindik trebetasun handirik, lana oso ongi egin behar baita”

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• 98-99 ikasturtean zehar ikastetxe publikoetan DBH II eta IEEI ikasten diarduten ikasleentzat garraiorako diru laguntzak. Epea: urriak 30.

• “Centros Tecnológicos” Fundazioaren eskutik, berrikuntza teknologikoak burutu nahi dituzten erdi mailako tituludunentzako diru laguntzak. Epea: urriak 30.

■ LANA

• Berriozargo Udalako euskara teknikaria behar da. Epea: azaroak 4.

• Berriozargo Udalak, emakumeei argibideak eta aholkularitza emateko begirale bat behar du. Epea: azaroak 9.

■ LEHIAKETAK

• Donostia Hiria Literatura sariak, ipuina eta antzerkia modalitateetan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: urriak 31.

• Komiki ez sexisten Donostiako lehiaketa, euskaraz edo gaztelaniaz. Epea: azaroak 4.

• Hondarribiko Udalak, Bordari Ipuin saria eta Sataraka olerki saria antolatu ditu. Epea: azaroak 6.

• “Portugaleteko Hiria” komiki lehiaketa, euskaraz nahiz gaztelaniaz, gai librean eta 4 orrialdeko luzeraz. Epea: urtarrilak 15.

■ IKASTAROAK

• Sakontze mailako karibear dantzen ikastaroa. Azaroaren 11tik abenduaren 16a arte. Astelehen eta asteazketan, 19:30etatik 21:30etara, Musakolako Saloian. Matrikula 4.000 pta/2.500 pta ikasle eta langabetuentzat. Izen ematea, Gazte Bulegoan.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai San Josepe kaleko 10.ean. Tel.: 943 77 11 07. 13:00etatik aurrera (Sabino).

• Etxebizitza salgai Bizkaia Etorbidea kalean, 14 - 3. ezk. Tel.: 943 79 22 92.

3. Errentan emateko

• Berriztutako etxebizitza alokagai, Arrasate erdian. Tel.: 990 26 72 63.

• Erdi aldean bakarrik bizi den emakume batek bi oheko gela bat alokatuko luke. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 79 213 0 (goizez) edo 943 79 82 43 (arratsaldez). Mari

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko genduke, Arrasaten. Tel.: 943 45 88 97.

• Etxebizitza alokatuko nuke. Bero-gailua beharrezkoa da, nahiz eta jantzi gabe egon. Tel.: 943 71 51 67. 20:00etatik aurrera. Marta.

• Emakumezko ikasle italiarrak etxebizitza alokatuko luke Arrasaten edo Oñatin. Sukaldearekin eta jantzia. Dei egin Soziologia Fakultatera (Tel.: 943 78 30 64/943 78 34 00.) eta esan harremanetan ipintzeko Carmen Paoluccirekin.

• Etxebizitza alokatuko genduke Arrasaten edo Aretxabaletan. Tel.: 943 79 20 61 (Ibon).

5. Etxeak osatzeko

• Aramaion pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Utzi mezua: 907 23 43 54.

• Laguna behar dut Donostian (Amaran) etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 71 50 87/943 71 41 49.

• Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko, Bilbon. Tel.: 943 79 56 86.

• Ikasle batek gela bat hartuko luke etxebizitza batean. Hobe euskaldukin. Tel.: 943 55 07 42. Kepa.

• Pertsona bat behar da Leioako Unibertsitatetik gertu dagoen etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 51 68 (Ainhua)/ 943 79 28 11 (Saioa). 14.000 pta hileko.

• Gela bat behar dut ikaslez osaturiko etxe batean. Tel.: 943 60 41 80/943 60 34 95. Idoia.

ETXEBIZITZAK

- 1. Saldu
- 2. Erosi
- 3. Errentan emateko
- 4. Errentan hartzeko
- 5. Etxeak osatzeko
- 6. Bestelakoak

GARAJEAK

- 7. Saldu
- 8. Erosi
- 9. Errentan emateko
- 10. Errentan hartzeko
- 11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

- 12. Saldu

- 13. Erosi
- 14. Errentan emateko
- 15. Errentan hartzeko
- 16. Bestelakoak

LANA

- 17. Eskaintzak
- 18. Eskaerak
- 19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

- 20. Eskaintzak
- 21. Eskaerak
- 22. Bestelakoak

MOTORRA

- 23. Saldu

- 24. Erosi
- 25. Bestelakoak

DENETARIK

- 26. Saldu
- 27. Erosi
- 28. Trukatu
- 29. Eman
- 30. Hartu
- 31. Galdu
- 32. Aurkitu
- 33. Bestelakoak

HARREMANAK

- 34. Agurrak
- 35. Kontaktuak
- 36. Deialdiak
- 37. Bestelakoak



943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Mutil bat edo bi behar ditugu Donostian, etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 39 62.

• Ikasle batzuek etxebizitza alokatu nahiko genduke Arrasaten. Tel.: 943 79 79 38 (Danel).

• Gela bat alokatuko nuke Arrasaten edo pertsona bat falta zaien etxebizitza osatzeko nuke. Tel.: 943 31 30 56. Gaueko 20:00etatik aurrera. Garikoitz

• Irakasle batek logela bat beharko luke, osatzeko dagoen etxebizitza batean. Tel.: 943 79 07 84.

• Bilbon pertsona baten bila gabiltza ikasle etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 943 79 28 05. (Iker).

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Hiru logela hiru pertsonarentzat, Arrasateko erdialdean. Tel.: 930 71 29 31. Arratsaldez.

• Gela bat alokatu nahiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 01 21. Mitxel. Gaeuz deitu.

• Logela bat behar dut ikaslez osaturiko etxebizitzan. Tel.: 94 683 00 86.

• Etxebizitza bat edo logela bat alokairuan hartuko nuke. Tel.: 943 18 03 78 (asteburuetan) eta 943 76 55

67 (asteazkenean).

• Etxebizitza edo logela behar da Arrasaten. Tel.: 943 79 59 60 (lan orduetan).

GARAJEAK

7. Saldu

• Garaje handia prezio txikian alokagai Udala plazan. Usetxe inguruan. Tel.: 943 79 66 38.

• Garaje itxia salgai. 14m²koa da eta Zigorrola aldean dago. Dei egin 943 44 54 22 telefonora.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Tokia salgai Erguin kalean. Edozein negozio motatarako prestatua dago. Tel.: 909 40 93 66

• Garaje itxia salgai Kontzezino inguruan. 18,9m² ditu. Tel.: 943 79 96 17.

15. Errentan hartzeko

• 75 m²ko lorja bat alokatu nahi nuke Anboto kalean. Tel.: 943 79 98 07.

• Gazte batzuk toki bat behar dute alokatzeko Musakolan ez den beste edozein lekutan. Tel.: 943 79 17 19. (Sergio, gaueko 21:00etatik aurrera).

LANA

17. Eskaintzak

• Emakume euskalduna prest etxe-ko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Emakume arduratsua prest umeak zaindu edo etxe-ko lanak egiteko. Tel.: 943 79 54 48.

• Emakumea prest orduka atariak garbitzeko. Tel.: 943 79 78 36. M^a Carmen.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko edo nagusiei konpainia egiteko. Interesatuak dei egin 943 71 53 74 telefonora, 20:00etatik aurrera.

• Neska prest umeak zaintzeko eta etxe-ko lanak egiteko. Tel.: 943 79 96 10 (Mari).

• Emakumea prest etxe-ko lanak egiteko. Tel.: 943 77 06 74.

• Neska prest umeak zaintzeko, etxe-ko garbiketarako egiteko, saltzaille bezala aritzeko. Tel.: 943 79 69 66. (Ainhua).

18. Eskaerak

• Modeloak behar dira lle apaindegirako, urriaren bigarren hamabostaldirako. Tel.: 943 77 09 44.

• Zerbizaria behar da asteburuetarako. Tel.: 945 44 50 86.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxe-ko lanak egiteko. Tel.: 943 79 56 30.

• Esperientziadun sukaldaria behar da. Deitu 943 79 22 15 telefonora (asteartean izan ezik).

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Eskola partikularrak ematen ditut. Euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 36 93. Patricia.

- Eskola partikularrak ematen ditut. Euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 31 48. Maider.

- Psikologoa naiz eta eskola laguntza emateko gertu nago. Tel.: 943 79 86 28.

- Enpresa zientzietan lizentziadunak eskola partikularrak ematen ditu 16 urtetik beherakoentzat, euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 06 39.

- Ingalaterrako lizentziadunak ingelesezko eskola partikularrak ematen ditu. Tel.: 919 54 64 64.

- Eskola partikularrak ematen ditut, euskaraz zein gaztelaniaz, prezio onean. Tel.: 943 79 79 35. Asier.

21. Eskaerak

- Kontabilitateko eskola partikularrak hartuko nituzke larunbatetan. Deitu asteburuetan. Tel.: 943 7930 39.

- Eskolak hartuko nituzke gai hauekin: programazioa, sistema eragileak eta sareak. Tel.: 945 44 51 66.

- Ekonomia alorreko matematika irakasle bat behar dut, Batxilergo LOGSE 2. mailan. Tel.: 943 79 39 62.

MOTORRA

23. Saldu

- BMW 318 i5.16v Coupe. 90 urtekoa. 140 cv. Zuria. VI-L matrikuladuna. Egoera onean. 120.000km. Prezioa: 850.000 pta. Tel.: 945 28 93 07. Alberto.

- Peugeot 205 XR 3 ateduna salgai. Gris iluna metaldun kolorekoa. Egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 943 79 02 28.

- Opel Corsa 1.2 Swing salgai. Kolore beltzekoa. SS - V. Tel.: 943 64 39 14.

- Kawasaki GPZ 400 F2 salgai. 94 urtekoa. Berri antza. maleta bat eta bi buru babesarekin. Tel.: 943 79 63 79.

DENETARIK

26. Saldu

- Marrazteko mahaia salgai. Berri-berria, prezio erdian. Tel.: 943 79 33 17 (21:00etatik aurrera).

- Sigma marka duen josteko maki-

na industrialia salgai. Tel.: 943 79 42 70.

- Autorako irrati-kaseta salgai. MX Onda 25wx4 - Dolby - MS Loudness - BSM - MTL - Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 60 81.

- Hamar Kardon V1x625 300 w potentziakoa. Musika talde batentzako aproposa. 100.000 pta., negoziagarriak. Tel.: 945 22 34 35 (Julian).

- Zimmerman pianoa salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 48 10.

- Trikitixa salgai. Tel.: 943 77 04 50.

- Bigarren eskuko akordeoi kromatikoa erosi nahiko nuke. Pigni edo Borsini markakoa. Tel.: 943 79 98 07.

- Windsurfing-eko tabla salgai. Bic Presto 2,80m. 120litro. Egoera oso onean. 45.000pta. Tel: 943794347, e-mail: aritzmurgia@globalnet.es

31. Galdu

- Maritxu Kajoi gauean graduatutako betaurrekoak agertu ziren Irati tabernan. Jabea handik pasatu, mesedez.

32. Aurkitu

- Maritxu gauean betaurreko graduatu batzuk aurkitu genituen. Galdetu Jai Zale tabernan.

- Ordularia agertu da Sokoa tabernan. Real Madridekoa da. Tel.: 943 77 00 89 (Monika).


33. Bestelakoak

- Osatzeko tratamendu naturalak ematen dira. Reiki sistema. Mota guztietako gaixotasunak. Tel.: 943 79 45 74

- Lau gazte gara, gure autojostiorako nekazaritza eta eskulangintza proiektuak ditugunak. Beraz, gusturara hartuko genuke berrizteko dagoen baserri zahar bat. Tel.: 943 79 48 0. Itziar.

- Perkusio lantegia. Hastapen eta sakontze mailak. Hainbat erritmo: afrikarrak, arabiarak, hegoamerikarrak, rock&rolla... Astelehenetan, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara, Gazteluondoko ikastolan. Izen emateko eta berri gehiagorako, Gazte Bulegora jo. Tel.: 943 77 00 65.

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARKOren 99ko Gida Komertziala prestatzen ari gara dagoeneko.


Aurten, Kike Dapena eta Oihana Jausoro izango dituzu bisitari zure tabernan, dendan edo lantegian komertzial lanak egiten.

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako merkatarien telefonoak jasoko dira Gida 99an.

ARKOren gidan azaldu nahi baduzu edo berri gehiago jaso nahi izanez gero, deitu ARKOra (943 77 08 15).

Gida 99, zure lana errazteko.

Gida 99



Igandean hauteskundeak ATBn (22:00)

Igandean, urriak 25, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan inguruko programa berezia egingo da ATBn. Mikel Irizar mondragoetarrak zuzenduko du programa eta gaueko 22:00etatik aurrera hauteskundeetako emaitzak eta irizkiak jasoko ditu. Programan zehar Arrasateko emaitzez gain, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga eta Aramaioko emaitzak ere ezagutu ahal izango ditugu, Euskal Autonomia Erkidegoko emaitzak ahaztu gabe.



22:00etatik aurrera izango da Hauteskudeei buruzko programa berezia.

“EKILAN”, ATB-KO AZKEN ESTREINUA

Ostegun honetan Alberto Gorritiberearen “Ekilan” programaren estreinua izango da ATBn. Saioa 21:30etan hasiko da, aspalditxotik Herri Irratian lanean diharduen esatari iaioaren eskutik.

BEZ mintzagai

Lehen programa honetan BEZ, Berrikuntza Enpresen Zentrua alegia, hartuko du programaren ardatz gisa Alberto Gorritibereak. Berrikuntza Enpresen Zentru hau duela urtebete sortu zen Arrasaten. Hango zuzendaria den Koldo Azkoitia izango da programako gonbidatua, eta berak egingo du ATBko kameran aurrean zentru horren orain arteko balantzea.

BEZek eskuhartze zuzena izan du hiru enpresaren sorreran. Hori dela eta, enpresa berri horietako hainbat langile ere etorriko da beren hasierako urratsen berri ematera.

Saioaren bukaera aldera, berriz, Koldo Azkoitia eta hiru enpresa horietako langileek hitzaspertu bat izango dute. Enpresa arloa eta berrikuntzak uztartuko dituen saio interesgarria, beraz.

■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 24

13:30 **Asteko programarik interesgarrienak:** Musi-klasik, Mahai ingurua, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete.

IGANDEA, 25

13:30 **Hauteskundeak 98 programa berezia**



ASTELEHENA, 26

13:30 **Albiste aurrerapena**

13:35 **Hauteskundeak 98** (errepika)

20:00/20:30/21:00 **Berriak**

21:30 **Mondra Sport**



ASTEARTEA, 27

13:30 **Albiste aurrerapena**

13:35 **Mondra Sport** (errepika)

20:00/20:30/21:00 **Berriak**

21:30 **Musiklasik.** Iñaki Olaizola eta Marta Izagirrek aurkeztutako musika klasikori buruzko saioa.

ASTEAZKENA, 28

13:30 **Albiste aurrerapena**

13:35 **Musiklasik** (Errepika)

20:00/20:30 **Berriak**

21:00 **Mahaingurua.** Rosa Mondragonek gidatutako saioa. Gaia: hauteskundeak.



OSTEGUNA, 29

13:30 **Albiste aurrerapena**

13:35 **Mahai ingurua** (Errepika).

20:00/20:30/21:00 **Berriak**

21:30 **Ekilan.** Inguruko enpresei buruzko saio berria Alberto Gorritiberearen eskutik.

22:00 **Soinuz Blai.** Nahi adina musika Iban Gonzalez eta Edu Abasolo aurkezle dituen saio honetan.

OSTIRALA, 30

13:30 **Albiste aurrerapena**

13:35 **Ekilan.** (Errepika).

20:00/20:30/21:00 **Berriak**

21:30 **Astebete.**

22:00 **Soinuz Blai.** (Errepika).





San Joan jaietako hirugarren eguna zen, 1954an. Karmen Askasibar, Manuel San Vicente *Zurdito* eta Jose Mari Gonzalez herriko plazan ziren, txikiteoaren ondorengo eta aurreko dantzaldian.

Zurdito eta Jose Mari artean soldaduzka egin barik zeuden. 19-20 bat urte izango zituzten. Lehena Elman zebilen lanean eta bigarrena Cerrajeran. Karmen Bergarara ezkondu zen. Gaur egun Gastetizen bizi da.

Adierazi digutenez, hirugarren eguna izaten zen egunik ederrena. Goizeko 09:00etan kalean, sokamuturrerako. Ondoren parrandan, kalean gora eta behera. Bazkaldu, lagun artean. Arratsaldeko 18:00etan etxera joan, garbitu, arropa garbiak jantzi eta kalera berriro. Atxurra galantak harrapatzen omen zituzten!

Argazkia:

Jose Mari Lasgabaster

Berriemailea:

Manuel San Vicente,

Zurdito

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



Pavimentos AGR

ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:

Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

beatriz

*oinetakoak
eta poltsak*

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

Euskal
Herria_{ren}
garaia da

bozkatu

EHH

Euskal Herritarrok

Errezago oraindik
Orain, lehen
6 kuotak
DOHAINIK



**Zatoz probatzera eta
jolastu deabruarekin**

**Ausart
zaitez!**



RENAULT

* Frogatuz gero, CD bat lortuko duzu.

MECA TAILERRAK

Tel.: 943 79 50 12 (Arrasate) / 943 76 40 68 (Bergara)